

JAFAR PANAHÍ ZINEMA ZUZENDARI IRANDARRA

«Gizakia da nire kezka, denok gaudelako zirkulu batean»

Irango agintarien aurka gogor borrokatu behar izan du Jafar Panahik 'Dayereh' filma egiteko. Orain hemen ikusi ahal dugu.

Edurne Elizondo | IRUÑEA

Ostegunean Iruñean aurkeztu zuen Jafar Panahik bere azken lana, *Dayereh*, Iranera atzo bertan itzuli aurretik.

■ **Zure azken filma jasotzen ari den harrera ikusita, eta Venezian iaz Urrezko Lehoia irabazi ondoren, gainditu behar izan dituzun oztopo guztiek merezi izan dutela uste al duzu?**

Pertsona batek benetan nahi duena eta gustuko duena egiten duenean, lan hori bukatuta ikus-tea beti merezi du. Pelikula egiteko baimena ematen ez zidate-nean sentitzen nuen zerbaiten falta nuela, eta nire asmo bakarra zen film hori egitea. Egin izan ez banu sentituko nuke ez nuela nahi nuena egin, gogorra izan litzateke. Filma bukatu eta laborategitik lehen kopia ateratu nuenean, hura izan zen nire bizitzako unerik ederrena.

■ **Film hau ez eginez gero besterik ez zenuela eginen ere erran zenuen.**

Bai, hori erran nuen komunika-bideen aurrean.

■ **Agintarien kontrako presio neurri bat izan zen?**


Bai, neurri batean, bai. Eta azkenean egin ahal izan nuen.

■ **Zergatik izan da proiektu hau hain garrantzitsua zuretzat?**

Nire film guztiek garrantzi bera dute niretzat. Pelikula bat egin nahi dudala argi daukadanean, istorio bat kontatu nahi dudanean, ona delako eta ezagutzera eman behar delako, lana eginda dago. Film guztia buruan irudikatzen dut, eta hori zinemara pasatu besterik ez dut egin behar. Hori lortzeko arazoa zen baimenik ez nuela jasotzen.

■ **Iranen oraindik ez dute bistaratzeko baimena eman; zentsuratu egin dute zure pelikula. Etsigarria izan behar du horrek.**

Bai, nire asmoa da filma nire herrian erakustea. Zentsuraren arazoa beti gertatu da zinema-ren munduan, eta nik uste dut denbora dela hori konpontzeko bidea. Denbora kontua da; pelikula eginda dagoenean ezerk ezin du bere bidea geldiarazi, beti dago zirrikituren bat zen-



OSKAR MONTERO

ZENTSURA

«Zinemaren historian beti gertatu da zentsura, baina film bat egin ondoren ezerk ezin du haren bidea geldiarazi; denbora kontua da»

tsurari ihes egiteko. Iranen jende askok badu pelikularen berri, ikusmina sortu da eta ikusteko irrikan daude.

■ **Hilaren hasieran Mohamed Jatami izendatu zuten berriro Irango presidente. Agintarien aldetik aldaketarik espetu al duzu?**

Egia da azken urteetan hainbat aldaketa izan direla, erreformak izan dira baina ez dira inondik inora nahikoa. Oraindik ere kulturaren arloan, eta, bizitzako arlo guztietan, oro har, debeku asko dago. Ez da ahaztu behar nire filmarekin gertatutakoa Jatami-ren garaian gertatu dela.

■ **Muga eta zentsura horiek guztiek nola eragiten dute prozesu sortzailean?**

Irango historian beti izan ditugu

horrelako arazoak, iraultzaren aurretik eta ondoren ere, eta onartu behar izan ditugu. Beti izan ditugu mugak eta zinema egin dugunok harrapatuta egon gara beti muga horien artean. Pelikulak egin badira zuzendarien ahalegin pertsonalari esker izan da. Zirrikituak bilatu dituzte beren ahotza entzunarazteko.

■ **Dayereh-k Irango emakumeen egoera latza islatzen du; errealtatearen puska zehatz hori islatzea izan da xedea, edo mezuak irakurketa zabalagoa du?**

Pelikula bat egiten dudanean gizakia daukat buruan. Gizakiok zirkulu baten barruan harrapatuta gaude, mugaz beteriko zirkulu batean. Hori gertatzen da Iranen, baina bai eta munduko

beste edozein lekutan ere. Pelikula Iranen kokatuta dago ni han bizi naizelako, baina zirkulu hori edozein lekutan egon daiteke. Aldatzen dena zirkulu horren itxura eta dimentsioa da.

■ **Zinema zuzendari baino lehen argazkilari izan zinen; zertan lagundu dizu lan horrek zinema egiterakoan?**

Familiaren argazkiak egiten hasi nintzen eta, azkenean, edozer gauza bilakatu zen argazki bihurtzeko gai. Horri esker edertasunaz jabetzeko gaitasuna gehiago garatu dudala uste dut, arreta handiagoz begiratzeko ditut gauzak. Nire lanetan gauza guztiak beren lekuan badaude lan horri esker da.

■ **Kiarostami zuzendari irandarraren laguntzaile izan zara; harengandik zer ikasi duzu?**

Hark erakutsi zidan gauza txiki-kiekiko ardura, xehetasunak zaintzeko eta irudi perfektua bilatzeko grina.

ZINEMA. Ehun film inguru eskainiko ditu, horietako batzuk euskarazko azpiztituluekin, eta Principe aretora zabalduko da egitaraua

Europako eta Japoniako zinemei ziklo bana eskainiko die Donostiako Beldurrezko Asteak

Iñaki Gurrutxaga | DONOSTIA

Azaroaren 2an hasi eta hilaren hamarrera arte iraungo duen Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren XII. Astearen ehun film inguru ikusteko aukera izango da, horietako batzuk Europari eta Japoniari eskainitako bi ziklo berezituren barnean. Batzuk estreinaldiak izango dira, eta beste hogeita hamar inguru film laburren sari-kean lehiatuko dira.

Aurtengo zikloak Japoniako

fantasiako eta beldurrezko zinemari eta sexuaren eta beldurrezko zenbait alderdiren ikuspegi berezia eskaintzen duen Europako filmografiari eskainiko zaizkie.

Japoniako zinematik Donostiara ekarriko dituen hogeitaz gero, Teinosuke Kinugasaren *A page of madness* film mutua, Inoshiro Hondak *Godzilla* munstroari buruz eginitako lehen filma eta Michio Yamamotoaren *Lake of Dracula* dira aipagarrienak. Europako

hogeitaz gero, Georges Franjuren *Les yeux sans visage*, Hans W. Geissendorferren *Jonathan* eta Bigas Lunaren *Bilbao* daude.

Zikloek hartu duten indarra eta ikus-entzuleen aldetik dagoen eskaria ikusita, iaz 30.000 lagun inguru bildu ziren. Antzoki Zaharraz gain Principe zinemako areto bat erabiliko dute aurtengoan. Halaber, zenbait film euskarazko azpiztituluekin eskainiko dira. 64 milioi pezetako aurrekontua du jaialdiak.



EGUNKARIA

Bigas Lunas zinemagilearen *Bilbao* filmeko irudi bat.